

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteartea, 2013ko martxoaren 26a. IX. urtea. 2.567. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Tolosako SAM lantegiko zuzendaritzak beste bost langile kaleratu nahi ditu

Zuzendaritzak jakinarazi du hartu nahi duten neurria; LAB sindikatuko ordezkariak enpresaren asmoa salatu dute eta gaur elkartu egingo dira kaleratzeei aurre egiteko

Zizurkilgo Huyck Wangner-eko langile batzordeak gaur bilera egingo du zuzendaritzarekin; bigarren Enplegu Erregulatzailer Espediente delata eta, greban jarraituko dute **o2**



## Birziklatze tasa altuena bermatzen duen sistemaren alde dago Aralar

Txosten teknikoan zain dago erabakia hartzeko; Tolosa Txukun plataformak, EAJK eta PSE-EEK Tolosako hondakinen mahaia utzi izana salatu du, eta «arduraz jokatzeko» eskatu die **o3**

## Tolosaldea Txukun plataformak zabor poltsak zintzilik jartzeko deia egin du

Alegia, Anoeta, Amasa-Villabona, Irura, Ibarra, Tolosa eta Zizurkilgo plataformetako ordezkariak haserre agertu dira, atez ateko sistema «inposizioa» dela uste dutelako **o3**

→ **1.200 mendizale, martxan.** Amasa-Villabonako Aizkardi mendi elkarrekin beste behin antolatu du Mendi Martxa. Dagoeneko 45. aldia da eta parte hartze handia izan du, ia 1.200 mendizalek parte hartu baitute elkarrekin antolatutako bi marxetan. Aurten, parte hartzaile gehiago izan dira ibilbide motza egin dutenak. **o7**

## Txindokiko Itzalak etzi zabalduko ditu ateak, iraila bitarteko jarduerekin

Abaltzisketako guneak orientazioa ardatz hartuta natura turismoan oinarritutako eskaintza berriak prestatu ditu; azken hiru urteotan 22.000 bisita jaso dituzte **o2**

## A-15 errepidean 40 urteko leitzar bat hil da auto istripua izan eta gero

Gizonezkoak Azpirotzeko tunelera sartzerakoan horma jo du ibilgailuarekin Donostiarako noranzkoan; autoak su hartu du, eta ezin izan dute ezer egin gorpua onik ateratzeko **o2**

## Armando Rocak «ezustean» irabazi du urrea Beteranoen Txapelketan

Tolosarrak Beteranoen Pista Estaliko Europako Txapelketako 60 metroko proban lortu du domina; Andu Martinez Rituertok, berriz, brontzea eskuratu du gorako jautsian **o6**

## Hondakinen arretarako GPS bulegoa martxan jarri du udalak

Amasa-Villabonako Udalak atez ateko hondakin bilketa sistemari buruzko zalantzak eta kezak argitzeko helburuarekin zabaldu du bulegoa, Kale Nagusiko 29. zenbakian **o3**

# Bost langile kaleratuko dituela azaldu du SAMko enpresa zuzendaritzak

2011z geroztik 12 langile kaleratu ditu SAMk, eta azken erabakiarekin, 17 izango lirateke kaleratutako langileak

**Itzea Urkizu** Tolosa

Tolosako SAM lantegiko zuzendaritzak, beste bost langile kaleratuko dituela jakinarazi berri du.

LAB sindikatuko ordezkariak azaldu dutenez, enpresako arduradunek arrazoi ekonomiko eta produktiboak eman dizkiete langileei; sindikatuak, ordea, benetako arrazoiak beste bat dela dio: «Tompla multinazionala buru duen Madrilgo taldearen mozkinak ahalik eta gehien handitu nahi dituzte. 2009az geroztik, dibi-

den du banaketa izugarria jasan du enpresak, eta Tolosako lantegiko langileek sorturiko aberastasuna, enpresatik atera egin dute». Honen harira, 2009az geroztik 6.700.000 euroko dibidendu banaketa izan dela nabarmendu dute, eta duela lau urte salatu bezala, «gure susmoak betetzen ari dira», diote LABeko kideek.

Azken urteotan, kaleratzeen auzia hizpide izaten ari da SAMn, izan ere, 2011ko irailaz geroztik, 12 langile kaleratu ditu enpresak; lau pertsona kaleratu zituzten 2012ko irailean, beste zazpi pasa den azaroan, eta abenduan, berriaz, beste langile bat kaleratu zuten. Modu honetara, pasa den ostiralean esan bezala, enpresak beste bost langile kaleratuko balitu, 77 langile izatetik 60 izatera pasako litzateke SAMk Tolosan duen lantegia.

SAM enpresako LAB sindikatuko ordezkariak «gogor» salatu nahi izan dute hau guztia: «Madrilen hartzen da erabakia, eta hemengo zuzendaritzak zintzo betetzen ditu langileen aurkako neurri guztiak, baita kaleratzeak ere».

Horrela, beraz, kaleratzeak albo batera utziz gero, sindikatuko kideak prest azaldu dira, zuzendaritzarekin hitz egin, eta enpresaren etorkizunaren inguruan akordio batera iristeko. «Aldiz, kaleratzeekin jarraituz gero, aurrean izango gaitu zuzendaritzak, gure lankideen lanpostuen defentsan borroka egiteko prest gaude eta», nabarmendu dute.

Gaur elkartuko dira SAMko langileak, kaleratzeen berriari aurre egiteko, eta mobilizazioen bidez egoerari erantzuteko.



Aste honetan zabalduko dute parkea, irailera bitarte. ITZEA URKIZU

# Orientazioa lantzeko jarduerak izango dira Txindokiko Itzalan

Aste Santuetako oporretan zabalduko da Abaltzisketako gunea; azken hiru urteotan 22.000 bisita jaso ditu

**I. Urkizu** Abaltzisketa

Zabaldu dute Txindokiko Itzala gunea, eta natura turismoa eta turismo aktiboa oinarri dituen eskaintzak, jarduera berriak dakartzan Aste Santuetatik irailera bitarterako; besteak beste, orientazioari garrantzia berezia emango dioten egitasmoak prestatu dituzte. Ezer baino lehen, arduradunek azken hiru urteotako «balorazio oso ona» egin dutela nabarmendu nahi izan dute, izan ere, 22.000 bisitari jaso ditu gunea, eta Tolosaldeko bigarren informazio punturik bisitatuena da, Olatz Illarregik azaldu duenez.

Datorren martxoaren 28an hasiko dira jarduerak, Amezketako arroila jaitsierarekin. Honekin batera, urteroko eskalada ikastaroak nahiz mendi ibilaldiak ere eskuragarri izango dira. Aurten, ordea, orientazioa gai nagusi hartuta, hainbat jarduera berri prestatu dituzte arduradunek. Bate-tik, GPS ikastaroa izango da Amezketan, eta Larraitzen orientazio ikastaroa ere prestatu dute.

Honez gain, irailean, Rogainea orientazio txapelketa ospatuko dute.

Aste Santuko oporrei begira, gainera, familiei begirako mendi ibilaldi bereziak antolatuta dituzte, orientazioa eta mendia uztartuz; «ibilaldi errazak izango dira, eta Altxorraren bila moduko bat izango da, haurrekin Larraitzera etortzen diren familia guztientzat», azaldu du antolatzaileetako batek.

Udan, berriz, bost eguneko udalduak izango dira estreinakoz, 11 eta 13 urte bitarteko gaztetxoentzat; Larraitzen kanpalekua izango dute, eta bertako taberna eta jatetxeetan burutuko dituzte otorduk.

Informazio gehiagorako, [www.txindokikoitzala.com](http://www.txindokikoitzala.com) web ataria bisita daiteke.

**Turismo aktiboa plazara**

Larraitzeko gunean burutzeko jardueraz gain, aurten, lehenengoz, natura oinarri duen turismoaren inguruko azoka antolatuko dute, ekainaren 14tik 16ra bitarte: «Lehen egunean, enpresa pribatu eta erakundeentzako aurkezpena egingo dugu, eta hurrengo bi egunetan, Abaltzisketatik Larraitzera bidean, natura eta turismo aktiboarekin zerikusia duten produktuez osatutako azoka antolatuko dugu, herritarrentzat».

# Greba mugagabeen jarraitzen dute Zizurkilgo Huyck Wangner-en

**I. Terradillos** Zizurkil

Atzo aurkeztu zuen, Huyck Wangner enpresak, bigarren Enplegu Erregulatzaila Espedientea. Kasu honetan, Zizurkilgo lantegiko 74 langileren kaleratzea aurreratu dute, eta 22 egunetik 25era igo dute lan egindako urte bakoitzeko kalte ordaina. Langileek azaldu dutenaren arabera, «espedientea aurrekoaren ia berdina da, eta planteamendu bera jarri dute mahai gainean». Hori dela eta, langileek «inoiz baino elkartuago» daudela, eta greba mugagabearekin jarraitzen dutela berretsi dute.

Duela bi aste Enplegu Erregulatzaila Espedientea erretiratu ostean, ostegunean bildu zen



Pasa den larunbatean ere elkarretaratzea egin zuten. ASIER IMAZ

Huyck Wangner enpresako zuzendaritza Zizurkilgo langileekin, Donostian. Bileran, zuzendaritzaren abokatuek espediente berri bat aurkezteko asmoa azaldu zieten. ELA sindikatuko Mikel Zabaleta ordezkariak adierazi duenez, «jakinmin handia» zuten langileek. «Espedientea erretiratu zuten zutela eta beste prozesu bat

hasi nahi zutela azaldu zuten. Baina guk ez genekien enpresaren benetako asmoa hori zen, ala mugimendu estrategiko bat zen, prentsa bidez izan baikenuen beste espediente baten berri».

Duela bi hilabete gertatu bezala, beraz, Enplegu Erregulazio Espedientea egun batzuk lehenago egindako bileran jakinarazi diete langileei. Espedientea jarri ondorengo lehen bilera bihar egingo dute, zuzendaritzak eta langile batzordeak, 10:00etan Donostian.

Langileek greba mugagabearekin jarraitzeko asmoa dutela azaldu dute, atzo aurkezturiko espedientea aurrekoaren oso antzekoa delako: «Astero informazio batzarrak egingo ditugu, eta mobilizazioak antolatuta ere bai; larunbatetan Tolosako Trianguluan elkarretaratzeak egiten jarraituko dugu, eta baita Donostian ere». Bide horretan, pasa den larunbatean ere elkartu ziren Tolosan, protesta egiteko.



# Leitzar bat hil da auto istripuz A-15ean, Azpirotzen

**Erredakzioa** Leizta

Gizonezko leitzar bat hil da A-15 errepidean, Azpirotzen (Nafarroa), auto istripuan; 40 urte zituen. A-15 errepidean zihuan Donostiarako norabidean, eta tunelera sartzeko hormaren aurka egin zuen talka. Bakarrik zihuan autoan.

Su hartu zuen ibilgailuak, eta istripua gertatutako lekura joan ziren Nafarroako larrialdi zerbitzuak eta suhiltzaileak; ezin izan zuten gizona onik atera.

Errepidea moztuta izan zen une batez, eta Nafarroako Auzitegi Medikuntzako Institutura eramane zuten gorpua, autopsia egin diezaioten.

# Aralar informe teknikoaren zain da hondakinei buruz erabakitzeke

Tolosa Txukun, EAJ eta PSE-EEk hondakinen mahaia utzi izana salatatu du Aralarrek, eta arduraz jokatzeko eskatu die

**Mikel Iraola** Tolosa

Aralarrek, atez ateko hondakinen bilketa sistemaren inguruko informe teknikoaren emaitzei itxarongo die etorkizuneko hondakinen kudeaketaz erabakitzeke. Alderdiaren bozkak erabakiko du zein izango den ezarri beharreko sistema, eta irizpide teknikoak kontuan hartuz, birtziklatze tasarik altuena bermatuko duen sistema aukeratzeko duela esan du.

«Tolosaren onerako», etxeetako hondakinen bilketarako sistema, konfrontaziorako eta gizarte-zatiketarako gai izaterik ez dutela nahi azaldu dute Inaki Irazabalbeitia zinegotziak, eta Alvaro Atorrasagasti eta Zigor Agirrezabala alderdiko kideek.

## Metodologia gardena

Bide horretan, adostasunez erabakitzea bilatzen zuen helburuarekin eratu zen hondakinen mahaian metodologia babestu dute. Irazabalbeitiaren esanetan, metodologia «gardena» da: «desadostasunak kudeatzeko %70ean ezarri zen gehiengo kualifikatua. Horrela, mahaia bi kidek erabakiak blokeatzeko aukera zuten. Beraz, ezin daiteke ezer inposatu». Aralarren esanetan, mahai horretan, hondakinen bilketa sistemaren inguruko azterketarako



Alvaro Atorrasagasti, Iñaki Irazabalbeitia eta Zigor Agirrezabala, hurrenez hurren. MIKEL IRAOLA

pleguak ezarri zituzten hasieran, EAJren babesarekin. Bertan, helburuak finkatu ziren, %60-70 hasieran, eta %75-80 2016rako. Irizpide teknikoaren nondik norakoak ere adostu zituzten. Horren arabera, txosten teknikoak azterketa konparatibo bat egin behar zuen, edukiontzien bidezko sistema bat eta atez ateko beste bat, gutxienez kontuan hartuta.

Baina mahaian pleguez gain, beste hainbat gai jorratu dituztela aitortu du Irazabalbeitiak. Harategi eta arrandegietan tuperrak erabiltzeaz, edota inauterietako prebentzio-kanpainaz ere mintzatu dira mahai horretan. «Beraz, soilik atez-atekoari buruz hitz egitea dela helburua esaten

duenak, badaki errealitatea falsutzen ari dela».

## Hobetzeko asko

Mahaia hobetzekoak ere badietuela aitortu du Aralarreko zinegotziak: «Mankomunitateak gainerako herrietako egoeraz eta erabakiez eman digun informazioa ez da nahikoa eta osoa izan. Hori konpon daiteke eta ez da inola ere mahaia uzteko arrazoia. Horregatik, EAJ, PSE-EE eta Tolosa Txukun plataformak alderdikeriagatik hondakinen mahaia utzi izana kritikatu dute Aralarreko kideek.

EAJren kasuan, hartutako jarrikerak, Gipuzkoan diseinatutako estrategia bati erantzuten diola adierazi du Irazabalbeitiak: «Gi-

puzkoako Aldundiaren kontrola berreskuratzeko EAJk diseinatu duen estrategia bat da, hondakinen bilketa ardatz duena. Estrategia horretan ez zaio interesatzen Tolosan hondakinen azuia adostasunean konpontzea, nahiago ditu konfrontazioa eta gatazka soziala sustatu».

Bien bitartean, Aralarrek hondakinen biltzeko sistema gardentasunez eta adostasunez erabaki dadin lanean jarraituko duela adierazi zuen Irazabalbeitiak. «Adostasunak ezin du onartu a priori jarritako betoak. Konponbidera iristeko, aurreiritziak gainditu behar ditugu». Bide horretan, parte guztiei arduraz eta erantzunkizunez aritzea eskatu die.

## Martxan da jada Villabonako atez atekoaren GPS informazio bulegoa

Herritarrei atez ateko hondakinen bilketaren sistemari buruzko duda eta kezak argitzeko helburua izango du

**M. Iraola** Amasa-Villabona

Atez ateko hondakinen bilketaren sistema ezartzeaz daude Tolosaldeko bost herritan, eta prozesu horretan herritarrei laguntzearen, informazioa banatuko dute Irura, Anoeta, Alegia, Zizurkil eta Amasa-Villabonako Udalek. Azken honek, GPS arreta bulegoa ireki du Kale Nagusiko 29. zenbakian herritarren duda eta kezak argitzeko.

Galder Azkue, Amasa-Villabonako alkateak, eta Rosa Arregi, Ingurumen zinegotziak ostiralean inauguratu zuten bulegoa, eta «edonorentzat» izango da zabalik. Bertan, esku-orriak banatuko dira atez ateko sistemaren inguruan, eta arduradunak edozein zalantza argituko ditu. «Garbi daukagu hau dela bidea, osasunagatik, ingurumenagatik, eta ekonomiaz, eta bide hori herritarrekin egingo dugu, gure laguntza», esan du Azkuek.

Bulegoa asteleheneetik ostiralean izango da zabalik, 11:00etatik 13:00era, eta 18:00etatik 20:00etara. Horrez gain, 672 655 455 telefonoa eta [villabona@tolosaldea.org](mailto:villabona@tolosaldea.org) helbidea jarri dituzte herritarren eskura duda gehiago argitzeko. Laguntza gehiago behar duen edonork, udaletxeko bere bulegora ere jo dezakeela azaldu zuten.

# Tolosaldea Txukun, haserre «inposaketaren» aurrean

Desobedientzia zibilara, eta etxeetako leiho eta balkoietan hondakin poltsak zintzilikatzera deitu dituzte herritarrek

**M. Iraola** Amasa-Villabona

Tolosaldea Txukun plataforma osatzen duten Alegia, Anoeta, Ibarra, Irura, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkilgo ordezkariak beren haserre adierazi zuten, atez ateko sistemaren «inposaketa» salatzeko, atzo Zizurkilen emandako prentsaurrekoan.

«Herritarren aurka» doan erabakia dela berretsi zuten, alkateak, Tolosaldeko Mankomunitatea

osatzten duten herrietan, atez atekoaren aurka lortu diren ia 12.000 sinadurei muzin egin baitiete «jarrera autoritarioarekin».

Bilketa eredu berriaren oinarri den ikerketa auzitan jarri zuen Patxi Amantegi, Tolosa Txukuneko bozeramaileak. «Garbitania enpresak burututako ikerketaren xedea izenburuak berak laburbiltzen du: *Tolosaldeko Mankomunitatean atez-ateko hondakinen bilketa selektiboa ezartzeko bideragarritasun tekniko ekonomikoa*. Beraz, eredu bakarra hartzen du kontuan, eta ereduaren ezarpenaz eta bere kostu ekonomikoaz dihardu. Ez du beste sistemekin konparaketarik egiten».

Garbitania eta Spora, atez atekoaren bideragarritasun txoste-



Herritar batzuek beren babesa eman zuten atzo prentsaurrekoan. M. IRAOLA

nak egiteaz arduratzen diren enpresen inpartzialtasuna ere dudan jarri du plataformak. «Bata Hernani, Usurbil eta Oiartzungo

udalek sortutakoa da; eta Spora, berriz, zintzilikarioak, kuboak eta konpostagailuak saltzeaz arduratzen da».

Amantegik, atez ateko sistema ezartzea inbertsio «handiegia» dela adierazi zuen: «kamioi berriak erosi beharko lirateke eta pertsonal gehiago beharko litzateke». Diru hori, euskal enpresei ematea proposatu zuen Tolosa Txukuneko kideak.

Plataformak, herritarrekin hartutako konpromisoa bete, eta bostgarren edukiontzia alde jarraituko duela adierazi zuen. Hauek informatzeko helburuarekin, hitzaldiak antolatuko dituztela aurreratu zuen Amantegik. Gainera, etxeetako balkoi eta leihoetan zabor poltsak zintzilikatu eta desobedientzia zibilara deitu zituzten herritarrek. Alkatei, berriz, «gezurrik ez esateko» mezua bidali zieten.

Euskal Pizkundeko kideei egindako omenaldiak, Dantzari Txiki Egunak eta Braderie-k jende ugari eraman dute Tolosara; Lizartzan, gauza bera gertatu da Elkartasun Bazkariarekin.

# Euskal Pizkundeak bere plaza du

## Asier Iraz

Euskal Pizkundeko osatu zuten belaunaldiko gizon emakumeek osatu zuten iragan larunbatean Tolosan. Ekitaldi nagusia Orta Ibaia, Aranburu Jauregia, Anitz Maria eliza eta Errotak mugatutako gunean egin zuten, hau da, Euskal Pizkundeko plazan. Izan hau jarri diote gure herri, eta inaugurazioan Ibai Iriarte Tolosako alkatea, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Zigor Etxebarria Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskarako zuzendaria eta Ramon Labaien euskaltzalea egin zuten. Harekin batera, pizkundeko kideen sem-tartekoak eta herritarrek egin ziren ekitaldi jendetsu eta eguzkitan.

Ibai Iriartek iragana, oraina eta etorkizuna lotu zituen Euskal Pizkundeko kideen lana gogoan: «Izan zirelako gara. Hain ondorenak, eta ondorio gara. Hainagatik gara. Hainek sortu zuten euskara indarberritako mugimendua, eta euskal kultura zepokion lekura eraman zuten. Hainek esker irabazi zuten euskarak esparru berriak. Euskarak eginen gaitu emakaldu, euskaraz gara, bestela ez gara».

Ramon Labaienek politikoki mundua zikien bere hitzak hain gurazto ekitaldian, euskaldunak euskaldunen aurka artizeak zentzunik ez duela esanaz. Gure egoneko pizkundelarrak erakur direla ere gogoratu zuten, «ardura hori, euren gain jarriaz».

Bakartxo Tejeriak pizkundeko emakumeak izan zituen bereziki gogoan. Horrekin batera, euskal pizkundoren bidala ez dela amaitu gogoratu zuten. Zigor Etxebarria, bere aldetik, gure izatea guk egiten dugula esan zuten, eta euskaltzale gurtilekin zorretan gaudela. Zor hori nola kitatu argi azaldu zuten Etxebarria: «Euskaraz bizi bai zor diegu».

Jende andanaren presentia ez zen Euskal Pizkundeko plazaren inaugurazioa mugatu. Gaur oso zehar, Tolosako kaleak giro berezia bizitu zuten. Alde batetik,

dantzari txikiak ibili ziren nahai, eta bestetik, erroleak. Uda-berri dantza taldeak ehunka dantzari zabaldtu zituen Tolosatik, Dantzari Txiki eta Erromeria Egunean. Tolosa&Co merkatarien elkarteak, gauza bera egitea lortu zuten erroleekin, IV. Braderie esker.

Tolosaldes Osasun Publikoaren Aldeko plataformak bere alderiak zabalduko probestu zuten larunbateko giro ederra. TOPAko kideak informazioa banatzen aritu ziren goiz gurtian zehar Triangeluan, eta besteak beste, Asuncion Klinikako arduradunak izan zituzten hizpide. Hain zuzen ere, eurek iragarritako hainbat neurri, errealizatu ez direla betetzen salatu zuten.

Jai giroa Tolosako Usabalen eta Zizurkil-Olanen bitartean, Ska-te Fiestan eta Gaste Egunean. Skate parkearen bigarren urteurrenaren, egun osoko jai antolatu zuten TST elkarteak kideak, Txepeta Gaste Asanbladakoek, gauza bera egin zuten Zizurkil, hau da, gazetetik gaurerako jaiak. II. Gaste Eguna herri kirol erakutsa taldi batekin hasi zuten, eta bazkariaren ondoren, jolasen aritu ziren gasteak, udako ondoak Lartingio belarditxoan. Ahali jokoan makina bat barre-egin ondoren, zuki karrera eta abar izan zituzten, urki-berrio potosaren aurretik. II. Gaste Egunari, azenek, Alerri musika taldearekin eman zituen amaiera.

Jende andana igandean Lizartzan elkartu zen, 300 lagun inguru. Elkartasun Bazkaria antolatu zuten bertan, eta Pello Olanen herriarra gogoan izan zuten. Epe-tertxik atera berrikan, Lizartzan bildutako elkartasuna zabaldu zitoten Olanen. Txalaparta, dantzariak, bertsoak, txaranga, oparriak... Ondoren, guztiak frontoira joan ziren, bazkariak gogotara. Babarrun jana egin ondoren, nahi zuten guztiak Lizartzan jatarrekin jarraitzeko aukera izan zuten.

Jende andanaren presentia ez zen Euskal Pizkundeko plazaren inaugurazioa mugatu. Gaur oso zehar, Tolosako kaleak giro berezia bizitu zuten. Alde batetik,

**tolosaldea.hitza.info**



**Tolosa** | Euskal Pizkundeko kideak omenatu zituzten larunbatean. Ekitaldiak udalarekin hasi ziren, Tolosako alkatearen eta Aranzadi Zientzia Elkartearen eskuak. Ondoren, Euskal Pizkundeko plaza inauguratu zuten. | [1. 10/2](#)



**Tolosa** | Tolosa&Co merkatarien elkarteak IV. Braderie antolatu zuten larunbatean; jendetsua izan zen. | [1. 10/2](#)



**Tolosa** | Uda-berri dantza taldeak esker, dantzariak bete ziren Tolosako kaleak larunbatean. | [1. 10/2](#)



**Tolosa** | Urtaren Nazioarteko Egunaren harira, Tolosako Ingurumen Zentroak eta udalak, "uraren kultura berri bat" sortzen laguntzeko asmoz informazio puntua jarri zuten ostiralean. | [1. 10/2](#)



**Zizurkil** | Txepeta Gaste Asanbladako kideek II. Gaste Eguna antolatu zuten larunbatean Zizurkil Golan. Aranzaldien jolasen bali ziren gasteak. | [1. 10/2](#)



**Tolosa** | Tolosalde Osasun Publikoaren Aldeko plataformako kideak informazioa banatzen aritu ziren Triangeluko plazan, larunbat goizean. | [1. 10/2](#)



**Tolosa** | Skate Fiestarekin ospatu dute Usabal kiroldegiko Skate parkearen bigarren urteurrena. Eguztiaren zehar skate modalitate desberdinez gozatu zuten bertan. | [1. 10/2](#)



**Lizartza** | 300 lagun inguru elkartu ziren Lizartzasako Elkartasun Bazkarian, igandean; Pello Olanen preso oharri elkartasuna adierazi zioten bazkariaren aurretik, besteak beste, dantzariak agura dantzan zuten. | [1. 10/2](#)

**Egin HITZAREN HARPIDEDUN**  
OTZULATZEN HIRIA  
MARTXOAREN 31RA ARTA  
ETA JASO

**EKAIN sagardoa**  
6 botelako  
kaxa berriz

Harekin ez egiten zinen gutxiengorik  
**Onduluko Aldea**  
Hortelaren, 14 pertsonaentzako  
asteburu  
batareko  
egunaldia  
ZORRA 14.900  
DAGU

Hitzaren kontaktua:  
902 42 02 01  
harpidedun@hitza.info



**Kirolak****↓ Kirol emaitzak****PILOTA**

<b>LEHEN MAILAKO BILAKAKO PILOTA TXAPELKETA</b>	
<b>Ligaxka, 14. jardunaldia</b>	
Berasaluze II - Albisu	20
Xala-Barriola	22
Titin III - Merino II	8
<b>Bengoetxea VI.a - Beroiz</b>	22

<b>Sailkapena</b>	<b>J</b>	<b>I</b>
1. Irujo-Zabaleta	14	11
2. Olaizola II-Zabala	14	10
3. <b>Bengoetxea VI - Beroiz</b>	14	10
4. Berasaluze-Albisu	14	6
5. Titin-Merino	14	6
6. Ezkurdi-Zubieta	14	5
7. Xala-Barriola	14	5
8. Arretxe-Begino	14	3

**Hurrengo jardunaldia****Finalurrekoak****Apirilak 1 (Eibar)**

Berasaluze II.a-Albisu

**Bengoetxea VI.a - Beroiz****BIGARREN MAILAKO PILOTA TXAPELKETA**

<b>Ligaxka, 11. jardunaldia</b>	
<b>Olazabal - Pascual</b>	20
Rico IV.a-Untoria	22

<b>Sailkapena</b>	<b>J</b>	<b>I</b>
1. Gorka-Zezilio	11	9
2. Apeztexea-Larrinaga	11	8
3. Rico IV-Untoria	11	7
4. Tainta-L. Galartza	11	6
5. Mendizabal-Merino	11	5
6. <b>Olazabal - Arruti</b>	11	3

**BETERANOEN XARE TXAPELKETA**

I. Caballero-I. Artola (0)	4/15
Morcuende-I. Lasa (2)	15/15
A. Lasa-J. Cosio (2)	15/9
I. Caballero-I. Artola (0)	15/9
J. Balerdi-I. Yurrita (2)	14/15
J. Lasa-I. Beitia (1)	15/12 10/8

**SHARE ELKARTEA SARIA**

L. Limousin-U. Mendizabal	26
A. Gutti-J. Larrarte	40
F. Santano-A. Artola	21
M. Iturbe-U. Urkola	40

**ARETO FUTBOLA**

<b>HIRUGARREN MAILA</b>	
<b>25. jardunaldia</b>	
Sestao-Ibarra	0-2
Bilbo-Egintza	7-5
<b>Tolosala-Laskorain</b>	1-5

**FUTBOLA**

<b>ERREGIONAL OHOREZKOA</b>	
<b>27. jardunaldia</b>	
Tolosa-Arrasate	4-0

**Hurrengo jardunaldia**

Touring-Tolosa

**↓ Iragarki laburrak****LAN ESKAERAK**

**Etxeko lanak.** Etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943696882/606 521992.

# Beteranoen Txapelketan «ezustean» harrapatu du urreak Armando Roca

60 metroko proban lortu du domina tolosarrak; Martinez Rituerto hirugarren izan da gorako jautzian



Armando Roca Berazubín. HITZA

**Iñigo Terradillos Tolosa**

35 eta 95 urte bitarteko 3.200 atleta baino gehiago bildu ditu egunotan Donostian izan den Beteranoen Pista Estaliko Europako Txapelketan. Tolosaldeko parte hartzaileak ere izan dira bertan, eta bi dominarekin itzuli dira. Bata, Armando Roca, urrearekin, eta bestea Andu Martínez de Rituerto brontzearekin.

Armando Roca tolosarrari dagokionez, 75 urtetik gorakoan mailan, eta 60 metroko proban lortu du urrezko domina. 8.88 segundotan egin ditu 60 metroak. «Oso gustura» dagoela azaldu du, eta «ezuste handia» izan dela, ez baitzuen espero. Adierazi duenez, duela hiru urte lortu zuen azkenean marka hori egitea. Lesio ba-

tzuk ere izan ditu tartean, eta aurtengo urtea «oso ona» izaten ari dela dio.

Rocaren atzetik sailkatu zen Tony Bowman britainiarra, eta bere artean, eta gainerako partaideen artean «laguntasunezko giro polita» dutela nabarmendu du: «Pasa den urtean berak irabazi nizinduen, eta aurrekoan eta aurre-

tengoan nik, beraz, esan nion hurrengo berari egokitzen zaiola. Oso ongi konpontzen gara elkarren artean». Txapelketa egunetan harmailetan egon zen giro «ona» eta «babesa» ere azpimarratu nahi izan du tolosarrak: «Entrenatzen nauen nire semearekin batera, familiako kideak, lagunak... guztiak nituen han».

Ez da Europako Beteranoen txapelketa irabazten duen estreinako aldia, eta Munduko Txapelketetan ere jantzi izan du dominarik. Eta, ez du berehalakoan kirol hau uzteko asmorik 78 urteko atletak. «Zorte handia izan dut, ez baitut inoiz izan gaixotasun larririk, baina hori bai, urteetan aurrera egiten ari zaren heinean, gehiago zaindu behar duzu gorputza, gehiago begiratu behar diozu». Halaber, nolabaiteko indarra edo bultzada ematen dion zerbaiten modukoa dela onartzen du: «Niretzat aurrera egiteko indarra ematen didan ilusio modukoa da kirola, bultzatzen nauen zerbait da». Jokatu duen hurrengo txapelketa Durangon

izango da, 100 metroko proba hain zuzen, eta ondoren, udan, Gasteizen izango den Espaniakoan lehiatuko da luzera bereko pro-



Aurrera egiteko indarra ematen didan ilusio modukoa da niretzat atletismoa»

**ARMANDO ROCA**  
Atleta

ban. Hurrengo urtean, berriz, Pista Estaliko Europakoan aritzeko asmoa du, Budapestean (Hungaria).

**Rituertok brontzezko domina**  
Bestalde, Andu Martínez Rituerto tolosarrak ere parte hartu du Donostian jokatu den beteranoen txapelketan. Bi probetan aritu da, 45 urtez gorakoan altuera jautzian eta pentatloian. Bada, gorako jautzian, 1,81eko markarekin, brontzezko domina jantzea lortu du.

# Trialsin proba «arrakastatsua» izan da

Irene Caminos tolosarra seigarren izan da kadete-junior-senior mailan; elite mailan, Benito Ros izan da irabazlea

handitu egin dute, eta antolatzaileek esan dutenez, kirolariak txalotu egin dute berrikuntza hori.

Emaitzei dagokionez, Irene Caminos tolosarrak ez zuen bere eguna izan etxean jokatu duen proban, eta seigarren postuan amaitu zuen kadete-junior-senior mailan. Hala ere, Gipuzkoako txapela ziurtatua zuen Caminosek, aurreko probetan batutako puntuei esker. Maila horretan, David Martin izan zen irabazlea. Alebin mailan ere izan ziren tolosarrak. Oier Lakunza hirugarren izan zen eta Igor Irazu, berriz, laugarren. Unai Iraola da Tolosa Biketrial taldean entrenatze lanetan aritzen dena.

Bestalde, elite mailan munduko onenetakoak izan ziren parte hartzen herenegun Tolosan, eta Benito Ros izan zen irabazlea. Benjamin mailan, berriz, Josu Perezek irabazi zuen eta infantil mailari dagokionez, Alejandro Montalvok.

**Iñigo Terradillos Tolosa**

Tolosako II. Trialsin proba hartu zuen herenegun Tolosak. Biketrial taldearen eskutik, eta Tolosako Udalaren laguntzarekin. Usabal kiroldegia ren aldamenean lekutu zen probak 55 parte hartzaile izan zituen, eta antolatzaileek balantze baikorra egin dute, «arrakastatsua» izan delako.

Tolosa Biketrial taldeak azaldu dutenez, «maila handia erakutsi dute parte hartzaileek, ikusmin handia piztu du eta jende asko etorri da ikustera». Pasa den urteko probarekin alderatuta, bazen berrikuntzarik aurtengoa, izan ere, biketrial egiteko pista

@ Sar zaitetz Tolosaldeko eta Leitzaldeko

HITZAren webgunean, eta atzo Tolosan jokatu zuten II. Trialsin probako argazki galeria topatu ahalko duzu. Edozer gairi buruzko argazki nahiz bideo galeria handia duzu aukeran eskualdeko egunkarian:

**tolosaldea.hitza.info**



Ariketa ikusgarriak egin zituzten hereneguneko parte hartzaileek. J. AMONARRIZ

**LAN ESKAINTZAK**

**Gitarra jotzailea.** Musika: Erromeria talde batek gitarra jotzaile bat behar du. Interesa dutenek, ed dezatela 658 70 11 96 telefono zenbakira.



Mendizaleen festa izan zen herenegun Aizkardiren eskutik. HITZA

→ **Laburrak****Bengoetxea astelehenean hasiko da finalaurrekoetan**

**LEITZA** ▶ Binakako Pilota Txapelketako finalaurreko partida jokatu dute Bengoetxeak eta Beroizek Berasaluze eta Albusuren aurka datorren astelehenean, apirilaren 1ean, Eibarko Astelena pilotalekuan, 17:30ean. Fase honetara pasadiren pilotariak zehaztuta daude, eta kanpoan geratu direnen artean dago Barriola leitzarra. Bigarren mailan, berriz, Olazabal aresoarrak ez du lortu finalaurrekoetara pasatzea.

**Urrutia laugarren, Etxauriko Harria proban**

**LEITZA** ▶ Josetxo Urrutia leitzarra laugarren izan da X. Etxauriko Harria Jasoaldia txapelketan. Etxaurin (Nafarroa Garaia) jokatu zen herenegun txapelketa, eta Aimar Irigoien errejidarrak jantzi zuen txapela. Marka guztiak hobetuz, gainera, 17 jasoaldi egin baitzizkion heldulekurik gabeko 136,5 kiloko harri traketsari, 5 minutuko txanda bakarrean. Txapelketako markarik onena izeta II.ak zuen, 15 jasoaldirekin. Bada, Irigoienek atzetik izeta II.a geratu zen (14 jasoaldi), Ostolaza hirugarren (11), Urrutia laugarren (9), eta Unai Bertiz bosgarren (6).

**Irudia** ▶**INTXURREKOAK GARAILE**

Udaberri Txapelketako hirugarren mailako eskuz binakako finala jokatu zituzten iragan ostiralean Eibarren, eta Intxurre taldekoak izan ziren garaileak. Hain zuzen ere, Gorostidi eta Alonsok jantzi zuten txapela, partida «serioa» jokatu zuten Arrasateko Arabaolaza eta Arregi 22 eta 12 mendean hartu ostean. Parekatuak hasi zen partida, eta galtzen ere joan ziren Intxurrekoak, baina azkenean, aurkariak menperatzea lortu zuten. HITZA

# Antolatzaileak «gustura» 45. Mendi Martxarekin

1.200 parte hartzaile izan ditu Aizkardi elkartearen martxak; «giro paregabea» izan dela nabarmendu dute

**I. Terradillos** Amasa-Villabona

Aizkardi elkarteko kideak «oso gustura» daude herenegungo Mendi Martxak utzitakoarekin. 1.195 partaide izan ditu Villabonako mendi elkartearen ekimena aurten, eta eguraldia lagun, aurreikusitako bezala joan da guztia, «giro paregabea».

Aurreko urteetan bezala, parte hartzaileek bi aukera izan zituzten, proba motza eta iraupen luzeko martxan zirkuituan sartzen den luzea. Motzean 695 lagun izan ziren, eta luzean, 510. Hain zuzen ere, datu horietan dago beste urteekiko desberdintasuna. «Aurreko probetan luzean parte hartzen zuten kopuru erdiak parte hartzen zuten motzean, baina aurten



Eguraldia lagun izan zuten mendizaleek euren ibilian. HITZA

gehiago izan dira proba motzean izena eman dutenak», azaldu dute Aizkarditik. Euren ustez, «bertako jende asko motzean irtezen da, luze egiten zaielako beste ibilbidea».

Parte hartzaileen jatorriari dagokionez, eskualdekoak izan dira asko, eta beste asko Euskal Herriko txoko askotarikoak. Era berean, Madril edota Santander bezalako Espainiako lekuetatik eto-

rritakoak ere izan direla azpimarratu dute.

Aizkardi elkarteko kideek Mendi Martxan era batera edo bestera lagundu duten guztiak eskerrak eman nahi izan dizkie: «Herriko jendeari, dendariei edota elkartei eskerrak ematen dizkiegu, gauden egoeran egonda ere oso ondo portatu baita jende guztia, esaterako oparien sortekin».

 **Hilberriak eta urteurrenak**
**ESKELAK**

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

**JORDI  
MARSAL***Etxeko saminarekin  
bat egiten dugu.*

Enekoren lagunak



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:**

**BERTAKO**  
HEDABIDEAK



**Galtzaurdi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzea, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Irudia Bedaio



## BEDAIOTAR EMAKUMEAK OMENDUZ

Azken urteetan egin bezala, larunbatean, giro bikaina izan zen Bedaio emakumeen zuzendutako hitzorduan. Bedaio emakumeen merezitako omenaldia egin zuten. 65 emakume elkartu ziren, eta giroz hasteko afal aurretik Abaetxe eta Artubi elkarten artean kalejiran ibili ziren triki-potoan. Artubi elkarterko kideek, esker ona adiera-

ziz emakume bakoitzari lore bat eman zion. Antzinako eta gaurko pasadizoak kontatuz, gustura egon ziren bedaiotar emakumeak. Afal ostean ezustekoa izan zuten emakumeek, eta DJ Pernan izan zen musika jartzen. Gaua «mundiala eta ahaztu ezinekoa» izan zela adierazi dute, eta «dantzaz eta algaraz» bete izan zela. HITZA

## Agurrak

### AGURRAK

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

●●●●● **agurrak**

## Farmaziak

### GAUR

- **Ibarra.** Egunkoia eta gaukoia: Lejeune, L. Euskal Herria kalea, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
- **Leitza.** Campos M.Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

**Mauka berria** GALERIKO ESKAINTZA

**Txakolindegira bisita gidatua, hamaiketako eta bazkaria.**

TALAI BERRI TRAKOLINDEGIA  
Sistemak auzo 73  
Tel. 943 27 21 30 - www.talaiterri.com

AMEZTI GAU JATEGIA  
Gran Camping sng  
Tel. 943 81 42 54 - www.amezti.com

**23€**

[www.mauka.eu](http://www.mauka.eu)

**berria**

## Agenda

### GAUR

#### DEIALDIAK

- **Ibarra.** Gaur, hilak 26, ohiko osoko bilkura egingo du Ibarra-ko udal gobernua. 19:00etan izango da batzar aretoa.
- **Leitza.** Gaur, hilak 26, 19:00etan hasita Leitzako udal-letxean ez ohiko udal batzarra izango da. Zortzi puntuko gai ordena jorratuko dute.
- **Tolosa.** Gaur, hilak 26, ohiko osoko bilkura izango da Tolosa-ko batzar aretoa, 19:30ean.
- **Tolosa.** Tolosako Foro Errepublikarrak herri bazkaria antolatuko du apirilaren 14rako. Bazkaria 14:15ean Zerkausian izango da. Interesatuek izena eman dezakete 22 euro Kutxako 2095 5081 93 1074768150 kontu korronte zerbakiari sartuta. Izena eta abizena zehaztu beharko dira. Entsalada erusiarra, krabarroka-budina, txekor masailak saltsan eta arrautzesnea izango da. Ogia, edatekoa, kafea eta kopa barne.
- **Tolosa.** Iruñean egingo den Aberri Eguna joateko autobusa antolatuko da Tolosatik. Autobusa 10:30ean abiatuko da Santa Klaratik. Biharkoa da izena emateko azken eguna, eta Raku tabernan eman behar da.

### IKASTAROKAK

- **Tolosa.** Bizikleta tailerra izango da gaur, 16:00etatik 20:00etara izango da, Box-a elkarteak antolatuta.
- **Tolosa.** Emakume-Lidergoari buruzko Jardunaldia: Emakumeen talentua kudeatzeko gaioak izango da apirilaren 14ean. Bizitza pertsonal, sozial zein profesionalen, jokabide estrategikoaren balibideak aplikatuz, jauzi kualitatibo eman nahi duten emakume guztiak zuzendua da, eta gaztelaraz izango da. Izena emateko epea, bihar, hilak 27, bukatuko da, eta 20 euro ordaindu beharko da. Bost orduko saioaren ostean, titulua ere jasoko da. 16:00etatik 21:00etara izango da.

### ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** *Salam. Beste kultura batzuei irekitako leihoa* eta *Aurrez aurre*, Tolosaldeko emakume artisten artelanak erakusketak ikusgai daude hilaren 30a bitartean, Aranburu Jauregian.
- **Tolosa.** Topic zentroan erakusketak jarri dute, Txo-xongilo taldeari esker. Enkarni Genua eta Manolo Gomezek sortutako eta zuzendutako taldearen lanak dira, eta larunbatean inauguratu zuten.

**Mauka berria**

Izena eman orain Maukan, eta irabazi bi pertsonarentzako egonaldia Urdaibai Biosfera Erreserbatuan, Aristieta baserrian!

[www.mauka.eu](http://www.mauka.eu)

**ARISTIETA BASERRIA**

Eman izena apirilaren 7a baino lehen